



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2018/12/04 Udaletxean 18.00-19:30



Gaurkoan bildu gara,

- Jose Ignacio Mendizabal (Herri plataforma)
- Manolo Iturrioz (EAJ)
- Joseba Aranburu (EAJ)
- Rosa Aurkia (Ingurumen teknikaria)

- Bere ez egotea justifikatu du: Edurne Huesa (Landarlan)
Adur Ezenarro (Bildu)

Gai ordena

Bileran ondoko gaiak landu ziren:

1. Urriko aktaren onarpena
2. Granelean saltzen duten komertzioei hobaria hondakin tasan
3. Asteazkenetan prentsara inguruko komertzioetako kartoia emategatik arazoak
4. Ordiziako auzokonpostagune batzuen egoera: Barrena, Oreja eta Buztuntza.
5. Hondakin mahaiko aurrekontua: hezitzaileak
6. Gure kaleak, plazak, eskolako patioak..... zaborraz beteta: zer egin???
7. Ordenantza

LANDARLAN: Gai zerrendari buruz bi azalpen bidali dituzte:

- Ordizian auzokonposta bultzatu beharra dago, kanpaina berezi bat egin eta Itsasondon lortu diren emaitza honengatik beraien sistema ezagutzera joan.
- Gai ordenean zehazten da kaleak, plazak,..... zaborraz beteta daudela baina Landarlanen ustetan hau gaizki izendatuta dago, ematen duelako dena zaborrez beteta dagoela eta arazo hau puntu batzuetan bakarrik ematen da. Beste era batera formulatzea eskatzen da.

LANDARLAN: Eta eskaera bat:

- Hondakin mahaira herritarrak gonbidatu behar dira:

EAJ: Ados eskaerarekin baina eskaera hau egiten da. Hondakin mahairako zozketan aukeratutako herritarrak gonbidatzen dira eta mahaiko material guztia bidaltzen zaie. Herritarrak parte hartzeko ez dute inongo arazorik.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2018/12/04 Udaletxean 18.00-19:30



Aurreko aktaren onarpena

Urriko akta ez da onartu.

EAJ: Aktak bileran esandakoa erreflexatu behar du baina puntu batean esan dena ez dago ondo jasota eta hau ondo jartzea eskatzen du. Ordizia Oraineko ordezkariak ordenantzaren inguruan egindako ekarpena ez dago ondo jasota eta literalki transkribatzea eskatu du.

Akta moldatu eta berriro bidaliko da.

EAJ: Konpostaren inguruan, galdetu behar dugu auzokonpostako legeak puntuen inguruan dauden herritarren osasuna al den dudatan jartzen duena. Osasun arazoa bada hau konfirmatu beharra dago eta ondoren erabaki zer egin gune hauekin.

TEKNIKARIA: Konpostaren legean, konposta erabiltzen denean sortzen den osasun arazoengatik da, ez inguruko herritarren osasun arazoengatik.

EAJ: Konpostaren erabilpenengatik da baina inguruko osasunagatik dela ere iruditzen zait eta hau jakin arte, nik ez nuke auzokonposta gune gehiago sortuko.



JOSEBA: Barrena, Buztuntza eta Orejako puntuak ia ez dira erabiltzen, Sasietak emandako informazioa da. Puntu guztien inguruko informazioa eman digute. Konposta egiteagatik hondakinen tasan hobari bat ematen da, Sasietak ematen digu zerrenda, honetarako ikusten dute zenbat alditan irekitzen duten organikoaren edukiontzia. Datu honen arabera hobaria ematen da, herritar batzuei hobaria kendu zaie (adibidez hilabetean 14 alditan ireki dutenei edukiontzia).

TEKNIKARIA: Sasietari esango diogu auzokonpostako partehartzaile guztiei deitzeko jakiteko proiektuan parte hartzen jarraitzen duten. Datu hauek ditugunean erabaki beharko dugu zer egin puntu hauekin. Datuak hondakin mahaira ekarriko dira.

Granelean saltzeagatik hobariak

JOSEBA: Azken plenoan granelean saltzeagatik hondakin tasatan hobari bat jartzea proposatu zen baina informazio faltagatik puntua atzeratzea erabaki zen.

TEKNIKARIA: Mahai honetan Ordizia Orainek proposatu zuen gutxienez % 30 bateko hobaria aplikatzea hondakin tasan, auzokonpostarekin egiten den bezala. Denen artean adostu genuen aukera ezberdinak begiratuko genituela.

	<p style="text-align: center;">Ordiziako hondakin mahaiaren bilera</p> <p style="text-align: center;">2018/12/04 Udaletxean 18.00-19:30</p>	
---	---	---

Aukera ezberdinak begiratzen egon naiz eta Katalunian pentsatzen nuen hobariaren kontua ezarrita egongo zela, baina nik ez dut inon topatu. Sasietari ere galdetu diot eta beraiek ere ez dute kasurik ezagutzen.

EAJ: Granelean saltzen duten Bartzelonako denda batetara joan nintzen eta hobaririk ez dutela esan zidaten.

TEKNIKARIA: Nik Ordizia Oraineko ordezkariari informazioa eskatu nion, berak azken bileran informazioa zutela esan baitzuen baina ez dut ezer jaso.

Asteazkenetan prentsara ematen den kartoia

TEKNIKARIA: Asteazkenetan azokako kartoiak prentsa batetara ematen dira, zerbitzu berezi bat da azokakoentzat, bertan 2-3 langile daude lanean baina inguruko dendatoko kartoiak ere eraman egiten dituzte eta langileak lanez lepo daude. Aparejadoreak esan digu zerbitzu hau ez dela dendarientzat, komertzioak bere kartoi bilketa du eta honekin erabaki bat hartu behar dela.

JOSEBA: Ordizian komertzioak atez-ateko zerbitzu berezi bat dauka, Sasieta Mankomunitateko beste inongo udalerrri batetan ez dagoena:

“Atez-ate papera eta kartoia astelehenetik ostiralera biltzen da (jaiegunetan izan ezik)”

Gutun bat bidaliko dugu inguruko komertzioetara kartoia ezin dutela eman prentsara eta beraiek duten zerbitzua erabiltzeko esanez.

Auzokonpostaguneen egoera

Gai hau landu dugu.

Sasietari esango diogu auzokonpostako partehartzaile guztiei deitzeko jakiteko proiektuan parte hartzen jarraitzen duten.

Aurrekontua eta “kaleak zikinak” kanpaina

TEKNIKARIA: Ordizia Orainek hondakin mahairako 20.000 €ko aurrekontua dagoela esan zuen eta aurrekontu honen helburuetako bat hezitzaileak kontratatzea dela baina Josebak ikusi du 10.000 € direla.

JOSEBA: Hondakin mahaiak aurrekontu bat du bere gaiak lantzeko, 10.000 €. Ori eta Amundarainen garbiketak egin dira eta 2.500 € gastatu dira, 7.500 € geratzen dira gastatzeko.

TEKNIKARIA: Kanpaina bat diseinatu behar da, puntu konfliktibo batzuk daude, organikoan %6,23ko inpropioak daude Ordizian.....



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2018/12/04 Udaletxean 18.00-19:30



GHK-k %10eko inpropioak onartzen ari dira eta datu hau mantendu egingo dute baliabide teknikoak asko hobetu direlako. Gainera, Sasietak organikoaren inguruko kanpaina bat egin behar du eta guk zerbait egin behar badugu Sasietari informatzeko eskatu digu denak batera egiteko eta ez bakoitzak bere aldetik. Ordiziatik joaten den organiko guztia onartzen da.

JOSEBA: Kanpainaren helburua ondo zehaztu behar da. Kaleko eta plazetako egoera azaltzeko ere kanpaina bat egin nahi da eta biak uztartu daitezke.

EAJ: Mahai honen lehenengo helburua gaikako bilketan % 85 batetara iristea da eta kanpaina bat diseinatu behar dugu helburu hau lortzeko.

JOSEBA: Gaikako bilketa % 85 batetara iristeko kanpaina bat diseinatu, hezitzaileak, bereizten ez duenarekin zerbait egin..... Baina beste aldetik, arazo handiak daude kaleko eta ikastetxeetako patioetako egoerekin Oianguren-eko patioan botiloila egiten da, zabor guztia lurrera botatzen da. Gai guztiak kontutan hartzen dituen kanpaina bat diseinatu behar dugu.

HERRI PLATAFORMA: Bakoitzak bere edukiontzira hondakinak botatzea lortzea izugarria izango zen.

JOSEBA: San Bartolomen edukiontzia eskatu zituzten eta jarri dira baina egunero edukiontzien kanpoaldean poltsak daude lurrean utzita.

HERRI PLATAFORMA: Hezitzaileen lana poltsa hauen barruan dagoena begiratzea izango zen.

JOSEBA: Dena ondo egingo balitz gaikako bilketa datu hobea izango genuke, lurrean uzten dena errefusara joaten baita.

EAJ: Isunak jartzen direla esaten da baina honen inguruan informatu egin beharra dago, jendeak ez baitaiki isunak jartzen direla.

PLATAFORMA: Kanpainako helburuak ikusten dira zeintzuk diren. Hondakin guztiak dagokion edukiontzira sartzen badira, datuak asko hobetuko dira.

Sasietari isunen inguruko informazioa eskatuko zaio.

Ordenantza

TEKNIKARIA: Ordenantzan isunen atala lantzea falta zaigu. Eredu ezberdinak aztertu ditut baina beraien artean lotzea ezinezkoa egin zait. Mankomunitate batzuen ordenantzak aztertu ditut eta denak eredu berdina dute. Orain Sasietak ordenantza berri egin behar du.

Eredu ezberdinak bidaliko dizkizuet eta denen artean adostu behar ditugu.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

2018/12/04 Udaletxean 18.00-19:30



TEKNIKARIA: Udaltzainak egoeraren memoria tekniko bat egiten dute eta ondoren Sasietak isuna jartzen du.

JOSEBA: Udaltzainak poltsak irekitzen dituzte eta poltsa barruan dagoena aztertu egiten dute.

EAJ: Kontrolatzeko neurriak zehaztu behar dira eta hauek ez badaude ondo, neurri zuzentzaileak ezarri behar dira.

PLATAFORMA: Udalak kontrolak egiten ditu, edukiontzien kontrola egin beharko luke.

EAJ: Udalak zehaztu behar du kontrolak egiteko pertsona bat, normalena Udaltzaingoa izatea izango zen.

JOSEBA: Beste gai bat komentatu nahi nuena; edukiontzien azpi-aldean topeak jarriko dira, edukiontziak leku berean jartzeko, distantzia minimo batekin beraien artean eta denak lerrokatuta.

Hurrengo bilera

Otsailaren 5ean, asteartea, 18:00etan.